

EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL  
BASQUE



# Ipar euskal herriko ekoizpenen katalogoa 2023

**CATALOGUE DES  
PRODUCTIONS DU PAYS  
BASQUE NORD 2023**

*Littérature, musique et autres  
productions culturelles*

*Literatura, musika eta bestelako  
kultur ekoizpenak*



**21** LIBURU  
*Livres*

**4** KOMIKI / ELEBERRI GRAFIKO  
*BD / Romans graphiques*

**1** DISKO-LIBURU  
*Livre-disque*

**11** DISKO  
*Disques*

**2** BESTELAKO EKOIZPEN  
*Autres productions*

**Argitalpenen katalogo hori Euskal kultur erakundeak proposatzen du Durangoko azokaren kariatara.**

EKEren laguntzarekin azokaren 58. edizioan parte hartzen duten egituren lanak biltzen ditu (argitaletxe, disketxe edo elkarteak).

Katalogo honetan, 2023an plazaratu diren ekoizpenak aurkituko dira:

liburuak, disko-liburuak, diskoak eta beste hainbat kultur ekoizpen. Izan dadin literaturan edo musikan, 39 lan hauen artean eskaintza aberats eta zabal bat atzemanen da: Haur literatura, gaurko musikak, olerkia, eleberrri grafikoak, eleberrriak, biografiak...

**Ce catalogue est proposé par l'Institut culturel basque dans le cadre du Salon de Durango en Biscaye.**

Il rassemble les productions des structures du Pays Basque nord qui participent au Salon avec l'aide de l'ICB (Maison d'édition, Maison de productions, associations).

On y retrouve 39 nouveautés toutes sorties en 2023 : livres, livres-disques, disques ainsi que d'autres produits culturels. Que ce soit en littérature ou en musique, les 39 nouveautés de ce catalogue présentent une offre riche et variée : littérature jeunesse, musiques actuelles, poésie, roman graphique, romans, biographies...

# 2023KO BERRITASUNAK

**AURKIBIDEA** · *Sommaire*

**LIBURUAK** · *Livres* 4

---

**KOMIKIAK / ELEBERRI GRAFIKOAK** · *BD / Romans graphiques* 15

---

**LIBURU - DISKOA** · *Livre-disque* 18

---

**DISKOAK** · *Disques* 20

---


**BESTELAKO EKOIZPENAK** · *Autres productions* 26



# LIBURUAK

*Livres*





## ATLANTICA argitaletxea



### Papogorri

**Egileak • auteurs:** Naia Robles Aranguiz  
& Oihan Delavigne Robles

**Generoa • genre:** Ipuin Musikala / conte musical

Baso baten erdian, oso haserre dagoen txori baten abestia entzuten da: Papogorri oso haserre da! Norbaitek arroltze erraldoi bat jarri berri du bere kabian. Basoko bidea hartzen du egilea aurkitzeko! Bere ondoko auzoak ezagutuko ditu, aurkituko ote du erruduna? Naia eta Oihanek, ama eta seme, haurrei zuzendutako ipuin musikala baten sortzearen ideia ukan dute. Hastapen batean, haien obra ikusgarri moduan asmatua zen. Baina gaur egun Papogorriren abenturak etxetik segitzen ahal dira liburuari esker!

*Au beau milieu d'une forêt, on entend le chant d'un oiseau, très énervé ; Papogorri est en colère ! Quelqu'un vient de pondre un énorme œuf dans son nid. Il part alors sur le chemin de la forêt retrouver l'auteur des faits. Il rencontrera ses voisins les plus proches. Trouvera-t-il le coupable ? Naia et Oihan, mère et fils, ont eu la merveilleuse idée de créer un conte musical destiné à l'éveil des plus petits. D'abord imaginé sous la forme d'un spectacle, Papogorri est aujourd'hui une aventure auditive à vivre à la maison !*

## Euskal Herria Burujabe Denon mundua eskuetan berri har dezagun

Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidario baten aldeko  
DIAGNOSTIKOA eta PROPOSAMENAK



## BIZI argitalpenak

### Euskal Herria Burujabe - +Denon mundua eskuetan berri har dezagun

**Egileak • auteurs:** Bizi! Elkartea

**Generoa • genre:** saiakera / essai

Liburu horrek Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidarioa biztanle guzietan erakitzekeo pistak proposatzen ditu, metamorfosi ekologikoa eta soziala bizkortuz. Horretarako, ekintza-palankak proposatzen ditu erantzukizun eta ekintza maila kolektiboagora pasatzeko.

*Ce document propose des pistes pour construire un Pays Basque souverain, soutenable et solidaire avec l'ensemble de ses habitants et habitantes en accélérant la métamorphose écologique et sociale. Pour cela, il propose des leviers d'action afin de passer à une échelle de responsabilité et d'action plus collective.*

## ELKAR argitaletxea

### Bichta éder

**Egilea • auteur:** Eneko Bidegain

**Generoa • genre:** eleberria / roman

Gaur kazetan ari da Eñaut Oihenart, urtetan Euskal Herritik urrun ibili ondotik, fisikoki nahiz gogotik. Xalbat Barnetxe laborari eta militante zailduak ohartarazi du, isilpean, euskal kostako jauregi abandonatu batean badela asmo ezkuturen bat, eta Eñaut ikertzen hasiko da zer ote den eraikitzaile-promotoreak eta tokiko agintariak lotzen dituen negozio ilun hori.

*Après des années passées loin du Pays Basque, Eñaut Oihenart travaille aujourd'hui comme journaliste. L'agriculteur et militant Xalbat Barnetxe prévient en secret, qu'il y aurait des intentions cachées concernant une demeure abandonnée de la côte basque, et Eñaut commence à enquêter sur une sombre affaire qui relie les promoteurs immobiliers et les autorités locales.*





## Haize leizean

**Egileak • auteurs:** Elise Dilet & Antton Hariñordoki, Ainize Butron (ilus.)

**Generoa • genre:** gazte literatura / littérature pour adolescents

Kolegioarekin, Izturitzeko leizeetara doa bisita baten egitera Haize eta han okre gorritzko arrasto baten gainean eskua pausatu eta trenputxartuko da. Madalena aroko neska gazte baten baitan gorpuztuko da, eta erritu inizatikoak bitzuko ditu tribuaren baitan.

*Lors d'une sortie scolaire aux grottes d'Isturitz, Haize pose sa main sur une trace ocre et perd connaissance. Téléportée à l'ère magdalénienne, elle vivra alors une multitude de rites initiatiques au sein d'une tribu.*



## Oihenartea ez hunki

**Egileak • auteurs:** Bea Salaberri & Adur Larrea (ilus. )

**Generoa • genre:** A1 irakurgai mailakatu / lectures niveau A1

Oihenartea etxaldean du bizitokia eta lana Peiok. Maite du laborari-lana, lurra, natura eta Baigorriko bizimodua. Bere ametsa da horrela bizitzea: zoriotsu da gustuko bizimoduan, maite duen familiarekin eta lagunekin. Baina bat-batean Peio desagertu da. Non da? Zer gertatu zaio? Peioren desagertze misterioitsuak kezka sortu du. Gainera Oihenartea etxaldea ere arriskuan da. Oihenartea ez hunki istorioak misterioa eta elkartasuna lotzen ditu, eta egungo Ipar Euskal Herria eta espekulazioaren arazoaren errealitatea agertzen ditu.

*Peio vit et travaille à la ferme d'Oihenartea. Il aime l'agriculture, la terre, la nature et le mode de vie de Baigorri. C'est son rêve de vivre ainsi. Il est heureux entouré de sa famille et de ses amis. Mais soudain, Peio disparaît. Où est-il ? Que lui est-il arrivé ? Sa mystérieuse disparition suscite des inquiétudes. Par ailleurs, la ferme d'Oihenartea est également en danger. Ce livre relie à la fois mystère et solidarité et nous plonge dans la problématique de la spéculation immobilière au Pays Basque nord.*

## HATSA elkarte

### HATSAREN POESIA Olerki Bilduma 2023



HATSA  
Elkartea

### Hatsaren poesia 2023

**Egileak • auteurs:** Kolektiboa (126 olerkari)  
**Generoa • genre:** olerki bilduma / recueil de poésies


1999az gero, urtero Senperen, (apirileko lehen igandean) olerki egun hori ospatzen da, olerkarien artean bazkalduz, irakurketa bat eginez eta aurkeztuz olerki bilduma berezi bat. Bilduma hori idekia da, banaketarik gabe, Euskal herriko poesia idazle guzieri. Aurtengo liburua 25.a da, eta 126 olerkari daude bertan. Poesiaren zilarrezko ezteiak ospa ditzagun!

*Depuis 1999, chaque année a lieu à Saint-Pée-Sur-Nivelle (premier dimanche d'avril) un jour dédié à la poésie. Les auteurs se retrouvent autour d'une table, offrent des lectures et présentent une collection de poèmes. Collection ouverte à tous les poètes du Pays Basque. Cette année, célébrons les noces d'argent de la poésie ! (Ouvrage N.25, textes de 126 poètes)*

## IKAS pedagogia zerbitzua

### HISTORIA XIX. MENDEA

Maite Urmeneta



### Historia XIX. mendea

**Egilea • auteur:** Maite Urmeneta  
**Generoa • genre:** ikasmateriala / matériel pédagogique

XIX. mendeko historia dokumentuen bidez, Euskal Herritik mundura. Edukiak Euskal Herriko dokumentu mota anitzetan oinarritzen dira bereziki: argazkiak, gutunak, prentsa artikulua, grafikoak, eta abar.

*L'histoire du Pays Basque au XIX<sup>e</sup> siècle à travers de nombreux documents : photos, lettres, articles de presse, graphiques, etc...*





## Intza eta Tomas, Laminaren iturria

**Egileak • auteurs:** Elise Dilet & Antton Hariñordoki, Laure Gomez (ilus.)

**Generoa • genre:** gazte literatura / littérature pour adolescents

Herrian, sekula agortzen ez den iturria gelditu da, eta gizon misterioitsu batzuk gorderik den altxor bat xerkatzen ari dira. Emazte bilo hori luze ezezagun bat ere inguru-minguruka dabil... Uda hastapena uste baino harrotuagoa izanen dute Intzak eta Tomasek. Gazte literaturako narrazioa, eta dokumentala urrunago joateko (testuinguru historikoa).

*La fontaine du village est asséchée et cela ne s'était jamais produit auparavant. Des hommes à l'aspect mystérieux semblent rechercher un trésor... alors qu'une inconnue aux cheveux longs et blonds rode... Intza et Tomas, nos deux jeunes aventuriers, vont passer un été plus mouvementé que prévu. Narration pour les jeunes, avec textes documentaires pour aller plus loin (contexte historique).*



## Izar saltzailea

**Egileak • auteurs:** Eneko Bidegain & Anne Baskaran (ilus.)

**Generoa • genre:** haur literatura / littérature jeunesse

Xubani ideia gaitza bururatu zaio diruaren irabazteko: izarren biltzea eta haien saltzea. Hastapeneko lilura eta arrakasta iragan eta, Xuban ohartuko da bere ekintzek badutela ondorioirik ingurumenean eta jendeengan...

*Xuban a eu une idée géniale pour gagner de l'argent : attraper les étoiles et les vendre. La magie et le succès du départ disparus, Xuban va se rendre compte que ses actions ont des répercussions sur l'environnement et la société...*

## MAIATZ argitaletxea

Simone Weil

### Askatasunaren erroak



Euskaratzea: Beñat Castorene

maiatz.

### Askatasunaren erroak

**Egileak • auteurs :** Simone Weil,  
Beñat Castorene (itzulp.)

**Generoa • genre :** filosofia / philosophie

1949urtean Camus-k argitarazi zuen obra, 1943an idatzia, filosofo gazte zenduaren obra nagusi bat da, nortasuna eta azaldu nahi zuen mundu berri baten oinarriak lantzen dituen

*Ce livre écrit en 1943 et publié en 1949 par Camus est le chef-d'œuvre de la défunte jeune philosophe qui analyse et projette les bases de la nouvelle société qu'elle imaginait.*

### Ene bizipen, pertsu ta kantuak



Pierre Erramouspé

maiatz.

### Ene bizipen, pertsu ta kantuak

**Egilea • auteur :** Pierre Erramouspé

**Generoa • genre :** biografia / biographie

Aldudar kantari eta pertsu idazleak, artzain egona Ameriketara, bere bizia labor eta fin kondaten du, bere sormen nagusiak agertuz : bizi baten lekukotasun miragarria.

*Chanteur etbertsulari connu, ancien berger en Amérique, Pierre Erramouspé apporte ici le témoignage émouvant de sa vie et de sa foi ainsi que ses compositions les plus connues.*



## Gero

**Egileak • auteurs:** Axular, Xabi Castorene (itzulp.)

**Generoa • genre:** erlijioa / religion

1643 urtean argitaratu zen euskal literaturaren obra nagusia lehen aldikotz frantseseratu da hor. Denbora hortako sineste, kultura eta mundua azaldu garaiko munduan sartzen da

*Ce chef-d'œuvre de la littérature en euskara paru en 1643 est traduit en français pour la première fois. Une plongée dans le monde religieux, culturel et populaire de l'époque.*



## Lo dider de Guernica

**Egilea • auteur:** Bernat Manciet

**Generoa • genre:** poesia / poésie

Gernikaren suntsitzea salatzen duen olerki hau poeta okzitandar handiaren mendeurrenakeri argitaratzen da, zazpi huzkuntzetara itzulia. Barbariaren kondena bat.

*Ce poème hommage à Gernika est publié à l'occasion du centenaire de la naissance du grand poète occitan et traduit dans sept langues. Une condamnation de la barbarie.*




## Ma vie avec les autres

**Egilea • auteur:** Gaby Etchebarne

**Generoa • genre:** biografia / biographie

Aldudetik serora misionest joan zenak bere bizia eta borrokak munduko bazterretan eremanak kondatzen ditu, bide nabar elizaren bidegabekeriak eta zahartuen egoerak aipatuz eta salatuz.

*Religieuse missionnaire originaire des Aldudes, Gaby a parcouru le monde. Elle raconte ici ses luttes contre les misères et pour la liberté en critiquant les comportements de l'église et le traitement des personnes âgées.*




## Nostalgia ez da salgai

**Egilea • auteur:** Xan Idiart

**Generoa • genre:** ipuinak / nouvelles

Umore beltza, fantasia eta gure munduari eman behako sarkorrak biltzen dira euskara bizi atsegin batean.

*Humour noir, fantaisie et regards acerbes sur notre monde se conjuguent dans un langage moderne vif.*



## Zetakak

**Egilea • auteur:** Aritz Mutiozabal

**Generoa • genre:** poesia / poésie

Musika ito bat eta erortzen senditzen den mundu hau biltzen dira sinfonia latz baten itxurarekin.

*Un monde qui s'effondre et une musique étouffée constituent la symphonie inquiète d'un poète.*



## Zortzi pastorala berri

**Egilea • auteur:** Jakes Lafitte

**Generoa • genre:** pastorala bilduma / recueil de pastorales

Ikerketa luzeek euskal mundutik hurbil diren pertsonaiak argira ekartzen dira liburu hontan, Pastorala gai dela Zuberoko mugak gainditurik mundura joateko.

*Utilisant la structure classique des pastorales, de longues recherches ont mené l'auteur à construire des personnages du Pays Basque, montrant l'aptitude de la pastorale à dépasser les limites de la Soule.*

## ZORTZIKO argitaletxea



### Xiberoa bihotzean eta gogoan

**Egilea • auteur:** Joseba Aurkenerena Barandiaran  
**Generoa • genre:** antologia / anthologie

Xiberoa: euskal lurra eta herrialdea, berezko kultura zaharrea errotua, nortasun sendo batez eraikia, indar handiko pertsonaia historikoak, maskaradak, pastoralak eta bestelako kultur gertakariak, literatura zahar eta aberatsa.

*La Soule : terre et territoire basque à la culture affirmée, forgée sur une identité forte, des personnages historiques puissants, des événements culturels et pastoraux remarquables, des masques fantasmagoriques et une littérature riche et originale.*

## ZTK argitaletxea




### Begiak

**Egileak • auteurs:** Gaizka Chamizo & Miguel Gren  
**Generoa • genre:** Haur literatura / littérature jeunesse

Jael eta bere amonarekin batera, beldurrari aurre egiten dion istorio batean murgilduko gara. Gure haurrek bizi duten munduaren errealitatea birrasmatzeko saiakera, irudimenez, barne unibertsoz eta bizipozaz josia. Maitasunaz, enpatiaz eta orainaren botereaz mintzo den istorioa.

*Jael et sa grand-mère vont nous plonger dans une histoire où ils vont devoir faire face à la peur.*

*Un essai de réinvention des mondes vécus par nos enfants, avec imagination, intimité et joie de vivre. Une histoire qui parle du pouvoir du présent, d'empathie et d'amour.*



## Euskal gramatika

**Egilea • auteur:** Jean Baptiste Orpustan

**Generoa • genre:** essai / saiakera

Nabar-lapurtarreko «ohitza onaren» laburpena.

*Grammaire basque.*

*Précis du « bon usage » en navarro-labourdin.*



## T.

**Egilea • auteur:** Amaia Hennebutte

**Generoa • genre:** gazte literatura / littérature jeunesse

Denok daramagu gure baitan melankolia edo tristura edo beste emozio bat, gure biziaren uhain kulunketan. *T.* gazteei zuzendutako albuma da. Sendi ditzakegun emozioetaz ez beldurtu, horien aurka ez borrokatu... baizik eta onartu eta bizi-lagun bilakatu...: hau da album hunen mezua.

Poesiak, ikatzak eta tinta txinatarrak osatzen dute kondaketa intimo hau.

*Au cours de notre vie, nous avons tous déjà ressentis en nous une certaine mélancolie, tristesse ou toute autre émotion. T. s'adresse aux jeunes. Ne pas avoir peur de nos propres émotions, ne pas s'opposer à elles... mais les accepter, les accueillir et en faire nos alliées...: tel est le message de cet album.*

*La poésie, le fusain et l'encre de chine composent ce récit intimiste.*



# KOMIKIAK ELEBERRI GRAFIKOAK

*BD • Romans graphiques*



## ELKAR argitaletxea



### Xan

**Egileak • auteurs:** Emma & Maialen Arestegui  
**Generoa • genre:** gazte literatura / littérature jeunesse

Xan hiri handi batean da ikasle eta 2020ko konfinamendu garaian Euskal-Herrira sartuko da, amaren etxera. Bakartasun batean murgildua, arrangura eta dudaz gainezka, mila galdera sortuko dira bere baitan. Alta, obra iniziatiko honek galderak pausatzea erantzunak aurkitzea baino inportanteagoa dela erakutsiko digu.

*Xan vit dans une grande ville et rentre habiter chez sa mère pendant le confinement de 2020. Isolé, anxieux, envahi de doutes, une multitude de questions se bousculent dans sa tête. Or, cette œuvre initiatique nous démontre que poser des questions est bien plus important que trouver des réponses.*

## HERRIMA argitalpenak



### Gora euskal (h)errientsak!

**Egileak • auteurs:** Asisko + kolektiboa  
**Generoa • genre:** historia / histoire

Bistan da kulturaren transmisioan emakume aitzindarien zerrenda zabalagoa dela, eta komiki-album hau omenaldia ere bada kolektibo haiei; Emakume Abertzale Batza, Begiraleak eta Euskal Eskolak gauzatu zituzten maistra kontzienteei, errientsa herrizale haiei.

*Force est de constater que la liste des pionnières de la transmission culturelle est large et cet album de BD est aussi un hommage à ces collectifs : Emakume Abertzale Batza, Begiraleak eta Euskal Eskolak.*






### Naiaren abenturak

**Egilea • auteur:** Enora Gaudet

**Generoa • genre:** komikia / BD

Neska heroi, ausart eta sutua, ganbera sekretu bat aurkitu beharra eta ezuste handiz beteriko bilaketa dira sail honen osagai nagusiak. Naiak azkenean aurkituko du nondik datorren eta, batez ere, benetan nor den. Sar zaitez abenturan, Atlanteen arrastoaren xerka dabiltzan Naiarekin eta Akelar, bere lagun leialarekin.

*Une héroïne intrépide et fouguese, une salle secrète à découvrir, une quête pleine de rebondissements sont les principaux ingrédients de cette nouvelle série dans laquelle Naia va découvrir d'où elle vient et surtout qui elle est réellement. Partez à l'aventure sur les traces des Atlantes avec Naia et son fidèle compagnon Akelar.*



### Aitor eta Lanpa magikoa

**Egilea • auteur:** Marie-Christine Thiry Merlo

**Generoa • genre:** komikia / BD


Aitor, ameslari goxo eta joaldun emeritoak izpiritu gaiztoak lasaiki uxatzen ditu. Orain kostaldean bizi denez, bere "take off"-a hobetzen ari da eta egun zoriontsuak pasatzen ditu, marea beltza etorri arte bere ondorio ekologiko izugarriekin. Lagunen ondora deiturik bilaketa berri arriskutsua eramateko, bere beldur intimoei bezainbat sorgin ikaragarriei beharko du buru egin, azken bidaia hasi aitzin...

*Aitor, le joaldun rêveur, chasse tranquillement les mauvais esprits. Maintenant qu'il vit sur la côte, il améliore son take off et passe des jours heureux, jusqu'à ce que la marée noire arrive avec ses terribles conséquences écologiques...*



**LIBURU -  
DISKOA**  
*Livre-disque*





## BELARRI ekoizpen etxea



**1615**

**Egilea • auteur:** Hinka

**Generoa • genre:** Neo folk

Hinka taldearen disko hau, Itxaro Bordak idatzitako poemek osatzen dute, orainaldia eta lehenaldia nahasiz, eta euskal arrantzaleek duela 400 urte Islandian bizi izan zuten atal tragiko batean murgilduz, idazlearen testu autobiografikoekin aberastua.


*Cet album du groupe Hinka est composé de poèmes écrits par Itxaro Borda, mêlant tour à tour présent et passé, et nous plongeant au sein d'un épisode tragique vécu par les pêcheurs basques il y a 400 ans en Islande, enrichis de textes autobiographiques de l'écrivaine, amoureuse de cette terre.*




# DISKOAK

*Disques*





## AUTOEKOIZPENAK autoproductions



### Animus anima

**Egilea • auteur:** Maialen Errotabehere

**Generoa • genre:** jazz / blues

Maialen Errotabehere kantariak *Animus Anima* izena duen laugarren albuma plazaratu du berriki. Lan berriak hameka kantu biltzen ditu egile andana baten eskutik asmatuak : Itxaro Borda, Maddi Zubeldia, Odei Barroso, Txuma Murugarren, Xabaltx eta Jean-Louis Errotabehere artistaren aita zena.

*La chanteuse Maialen Errotabehere a récemment publié son quatrième album intitulé Animus Anima. La nouvelle œuvre comprend dix chansons composées par de nombreux auteurs : Itxaro Borda, Maddi Zubeldia, Odei Barroso, Txuma Murugar, Xabaltx et Jean-Louis Errotabehere, qui était le père de l'artiste.*




## Baiona Zikina

**Egilea • auteur:** Kuma No Motor

**Generoa • genre:** punk-hardcore

Baionako punk-hardcore hirukoteak *Baiona Zikina* lan berria argitaratu zuen 2023ko apirilean. Lehengo punk-hardcore oso klasikotik atera eta post-hardcore eta crust-metal ukitu batzuk eman dizkio hirugarren disko honi. Osoki euskaraz, gai politikoak zein pertsonalagoak jorratzen ditu taldeak.

*Le trio punk-hardcore de Bayonne revient avec son 3<sup>e</sup> album: Baiona Zikina. Il s'éloigne du punk-hardcore très classique et enrichi sa musique de sonorités post-hardcore et crust-metal. Chanté en basque, le groupe évoque des sujets politiques mais aussi plus personnels.*



## Denok gara Bobi

**Egileak • auteurs:** Patrice «Watson» Dumora & Beltzane Obanos

**Generoa • genre:** pop-rock

laz, itzuli zitzaigun Bobi, bainan, azkenean, nor da Bobi? Azalpen saiakera bat "pop-rock" estiloko 4 kantutan.

*L'an dernier Bobi nous était revenu. Mais, finalement, qui est Bobi? Une tentative d'explication en 4 chansons de style pop-rock.*



## Odolean dena

**Egilea • auteur:** Karma

**Generoa • genre:** rock

Karma rocka zainetan duen talde bat da. Hainbat deklinazio, sabore edo azentuz aberasturiko rocka jotzen dute.

*Karma est un groupe qui a le rock dans le sang. Le trio joue une musique enrichie de différentes déclinaisons, saveurs et accents.*

## BELARRI ekoizpen etxea



Xabi San Sebastian  
betazalak

### Betazalak

**Egilea • auteur:** Xabi San Sebastian

**Generoa • genre:** rock

Kantautore donostiarraren bostgarren lanak *betazalak* du izena. Hamar kantu eder, folk kantautoreen ildoaren jarraitzaile. Beñat Gaztelumendi, Iñigo Astiz, Harkaitz Cano eta Xabiren hitzek ingurunearen begirada poetiko-politiko eskaintzen digute.

*Le 5<sup>e</sup> album du chanteur donostiarra s'intitule Betazalak (paupières). Dix nouvelles chansons d'essence folk le composent, et les textes de Beñat Gaztelumendi, Iñigo Astiz, Harkaitz Cano et Xabi nous offrent un regard poétique et politique de notre environnement.*



JEAN-LOUIS HARGOUS  
CHANTS ÉLECTROMAGNÉTIQUES  
LA FABRIQUE DU TEMPS

### Chants électromagnétiques

**Egilea • auteur:** Jean-Louis Hargous

**Generoa • genre:** musika akusmatikoa / musique acousmatique

Bernard Parmegiani soinuen izaeraren konpositore bikainari eskainia, *Chants Electromagnétiques* hauek zazpi kantuetan banatzen dira, bakoitza banan-banan, bere aldetik jo daiteke, gai sonoroaren eta konposaketaren hurreratze eta berezitasun ezberdinen deklinazioa. Ereku elektromagnetiko fisikoen imaginario bat inguratzen gaituen espazioa erabat betetzen, unibertso dardarkariaren metafora.

*Ces Chants électromagnétiques sont un hommage à Bernard Parmegiani, génial arpenteur et compositeur de la nature des sons. Ils se subdivisent en sept chants, déclinaisons de différentes approches et caractéristiques de la matière sonore et de la composition. Un imaginaire des champs électromagnétiques physiques qui peuplent l'espace qui nous entoure, métaphore de l'univers vibrant.*

## ELKAR musika



### Bas(h)Oan II

**Egilea • auteur:** Bas(h)Oan

**Generoa • genre:** ohizko musika eta garaikidea / musique traditionnelle contemporaine

Robbie Basho (1940-1986) musikari estatubatuarren lana eta pentsamendua *Bas(h)Oan* diskoan islatu zituzten Beñat Achiaryk, Joseba Irazokik eta Julen Achiaryk. Disko haren segida da *Bas(h)Oan II*. Oraingoan, baina, Oihan Oliarj-Iñes baxu-joleak bat egin du hiru musikariek. Disko berriak ere esperimentazioa du oinarri, eta herri-musika garatzeko bide ausartak proposatzen ditu.

*L'œuvre et la pensée du musicien américain Robbie Basho (1940-1986) se reflètent dans l'album Bas(h)Oan de Beñat Achiary, Joseba Irazoki et Julen Achiary. Ils reviennent avec Bas(h)Oan II qui est la suite de ce premier disque. Mais cette fois, le bassiste Oihan Oliarj-Iñes a rejoint les trois musiciens. Le nouvel album s'appuie également sur l'expérimentation et propose des voies audacieuses pour développer la musique populaire.*



### Erresñula kantari

**Egilea • auteur:** Jean-Michel Bedaxagar

**Generoa • genre:** herrikoia / traditionnel

Jean-Michel Bedaxagar zuberotarraren lan berria. Musikariak, laguntzaileak: Errege Beldak, akordeoia jotzeaz gain, ahotsetan ere parte hartu du. Juan Mari Beltran musikologoak musika-tresna pila bat jo du, horien artean, txirula eta xirilarrua.

*Dernier opus du souletin Jean-Michel Bedaxagar. Pour ce disque, il est accompagné d'Errege Belda à l'accordéon et du musicologue Juan-Mari Beltran au chant ou encore à la txirula...*



## HEBENTIK elkarteak



### Gaztelondon zer berri

**Egileak • auteurs:** Mixel Etxekopar & Dominiko Rekalt, Jean Kristian Galtzetaburu, Pierre Vissler

**Generoa • genre:** herrikoia / populaire

Pierre topet Etxahunen kantuen eta biziaren giroan sartzen da, soinuz (Barkoxen hartutako soinuk parte), musikaz eta kantuz bistan da.

*Disque qui reprend le spectacle-cabaret alliant musique, texte et bertsu autour de la vie et de l'œuvre de Pierre Topet Etxahun.*

## KANTUETXE kultur Elkarteak



### Kemaronte

**Egileak • auteurs:** Kemaronte

**Generoa • genre:** jazz, soul

Kontzertu bakoitzak soinu-esperientzia batean murgiltzen gaitu. Alejandrok, istorioa sortzen du bere gitarrarekin, Ustaritzek, bere ahotsaz, letra bakoitza magia betetzen duen bitartean.

*Chaque concert nous fait voyager à travers une expérience sonore ou Alejandro se raconte en musique et Ustaritz au chant.*

## USOPOP elkarteak



### Laupaborts aire ttipi

**Egilea • auteur:** Peio Erramuzpe

**Generoa • genre:** elektro

Peio Erramuzpe-k Haira izenarekin atera du "Laupaborts Aire Ttipi" bere lehen bakarkako lana. Aldude baleako oihan eta erreka baten izena hautatu du Peio Erramuzpek, bere musika proiektua biziarazteko.

*Peio Erramuzpe présente son 1er album solo "Laupaborts Aire Ttipi" sous le nom de Haira. Il a choisi le nom d'une forêt et d'un ruisseau de la vallée des Aldudes pour donner vie à son projet musical.*



# BESTELAKO EKOIZPENAK

*Autres productions*



# MAIATZ argitaletxea




## Maiatz 76 & 77 aldizkaria

**Egileak • auteurs:** kolektiboa / collectif  
**Generoa • genre:** literatur aldizkaria / revue littéraire

Ohizko lan kolektiboa agertzen da 43garren urtean sartuko den aldizkariekin, olerki, ipuin, itzulpen eta saioekin.

*Un travail d'écriture collectif qui rentre dans sa 43<sup>e</sup> année avec ses textes poétiques, ses essais, nouvelles ou traductions.*

# SEASKA federazioa



08:40 17:43 © Oztibarre omakizkade (1<sup>er</sup> urte)

2024		Urtarrila	
A stelehena URTE-BERRI	1	Urtats	1
A steartea ALAIZA	2	Alaitz	
A steazkena BILBO	3	Inge	
O steguna IRATZEDER	4	Euken	☾
O shtirala ILIANE	5	Edorta	
L arunbata AGERNE	6	Izar	
I gandeoa ZURI	7	Erramun	
A stelehena DIAGUR	8	Luku	2
A steartea GONTZAL	9	Julen	
A steazkena BIHAR	10	Gillen	
O steguna HALTZA	11	Ezker	☀
O shtirala EDERNE	12	Eder	
L arunbata ARAOTZ	13	Joritz	
I gandeoa ILARI	14	Zuhaitz	
A stelehena JANITZ	15	Maore	3
A steartea URIZAR	16	Markel	
A steazkena ANTONI	17	Antton	
O steguna IZANI	18	Munia	☾
O shtirala MARIO	19	Maren	

## 2024 urteko EGUTEGIA

**Egilea • auteur:** Seaska  
**Generoa • genre:** egutegia / calendrier

Seaska, Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioa da. 1980 hamarkadatik urtero agertzen duen egutegiak euskal izenak zerrendatzen ditu. 2024 urteko egutegia Oztibarreko ikastola eta Manex Erdozaintzi Etxart kolegioko ikasleen marrazkiekin apaindua da.

*Seaska est la fédération des ikastola du Labourd, Basse Navarre et Soule. Depuis les années 1980 elle publie un calendrier comportant la liste des prénoms basques. L'édition 2024 est illustrée par les dessins des élèves de l'ikastola d'Oztibarre et du collège Manex Erdozaintzi Etxart de Larceveau.*



EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA  
—  
INSTITUT CULTUREL  
BASQUE

## 2023KO BERRITASUNEN KATALOGOA HONEN EGILEA

*Ce catalogue des nouveautés 2023 est édité par*

### EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Institut culturel basque  
Château Lota Jauregia • 64480 Uztaritze  
T. 05 59 93 25 25 • [info@eke.eus](mailto:info@eke.eus)  
[www.eke.eus](http://www.eke.eus)

### KATALOGOA ETA INFORMAZIO GUZIAK

*Le catalogue et toutes les infos*

[www.durango.eke.eus](http://www.durango.eke.eus)

## PARTAIDEAK | PARTENAIRES

KARMA

**ikas**  
euskal pedagogia zerbitzua

**ZORTZI KO**  
ARGITALETXEA



belarri ©

maiatz.

**zerrima**  
argitalpenak



**mait6**  
kultura